

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko azaroaren 26a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Bihar eta etzi San Andres feriak egingen dituzte, patriaren eguna ospatzeko
Iñigo Ibarra • «Gipuzkeraren menpe dago bertsolaritza»

iBrujula.com, sareko iparrorratza



• M. N.

iBrujula.com egunkari digitala gaztelaniazko lehen argitalpena da, mundu osoan 80.000 harpidedun inguru baititu. Argitalpena handia izan arren, hura kudeatzen duen enpresa, IMSSA, ttikia da. Mikel Amigot iruindarrak zuzentzen du. Berak sortu zuen enpresa hori, «informazioa zabaltzeko eta ez dirudun izateko». Eta bereari eusten dio, komunikazio enpresa handien presioei amore eman gabe, egunero informazio independentea sareratuz. Sarearen erraien iparra aurkitzeko lanabes ezin hobea da iBrujula.com.



Lizarra •

Hemen dira San Andres feriak

Nafarroa •

Euskarazko produktuen katalogoa karrikan da

Bihar eta etzi egitarau oparoa izanen da Lizarrako patroia eguna ospatzeko

Egiteko, ikusteko, erosteko, dastatzeko eta ikasteko gauza anitz izanen da asteburuan San Andres ferietako egitarauaren baitan. Ekitaldien artean aipagarria da igandeko ganadu feria; Santiago plazan.



Santiago Plazako Ganadu feria da San Andres jaietako ekitaldi aipagarriena.

• KRISTINA BERASAIN

U RTERO LEGEZ, UDAZKENAK zuhaitz adarretatik hosto ugari bota dituelarik, Lizarrako feriak hurbil dauden seinale da. Bihartik aitzina asko izanen da ikusteko Lizarrako hainbat txokotan, San Andres ferietarako prestatu duten egitarau zabalaren barruan. Ekitaldien artean, Santiago plazako ezkien babespean eginen den ganadu feria da aipatzekoa. Hala, igande goizean eta arratsaldean, salgai eta ikusgai izanen dira zaldi, moxal, behor eta astoak, bertzeak bertze. Hau xe da mendez mende Lizarran mantendu den tradizioa.

Garai batean, baserritarrak abere gehiagorekin jaisten ziren hirira. Egun, abere kopurua urritu egin da, baina ez

dira gutxi biltzen Santiago enparantzan, eta salmentak ere urtez urte mantendu egiten dira. Bertzetik, erran beharra dago larunbatean eta igandean abeltzaintza hornitzeko lanabesen erakusketa eginen dela Oncineda estalkian. Sektoreko 70 enpresa baino gehiago bilduko dira hor.

Ferietako egitaraua bihar hasiko da Foruen plazan egiten den antzara eta ahateen erakustaldiarekin. Jarraian herri kirolen ikuskizuna izanen da. Arratsaldean, txakur-eren lehiaketa jokatu da, Txakurraren Egunaren biga-

rran aldiaren barnean. Hainbat sari banatuko dira txakur eder, berezi eta trebeenen artean. Azkenik, arratsaldeko zazpitan IV. Ardo Dastatzea eginen da Foruen plazako zerbitzu anitzetako aretoan.

Igandea egun handia izanen da. Goizeko zortzietan dianek herria esnatuko dute, dultzainero eta txistularien musikarekin. Halaber, goizean goizetik, azienda feria egiten da Santiago plazan. Foruenean, berriz, eskulangileen eta elikagaien erakusketa izanen da; 90 dendatxok hartuko dute parte erakusketan.

11:30etan Idiazabal jatorri izeneko Euskal Herriko Gazta Lehiaketa eginen dute. Arratsaldean, amateur eta profesionalen pilota partidak jokatuko dituzte pilotalekuan.

Horiez guziez gain, igandean txahal, moxal eta ostruka haragien dastatzea eginen da aurreneko aldiz ferien egitarauaren baitan. Txahal haragia Elorrioko baserritar batek prestatuko du. Horretarako 250 kilo ikatz erabiliko ditu eta 12 orduz egonen da txingarra prestatzen.

→ Kristina Berasain


NAFARROA osoko hainbat herri, ibar, mankomunitate eta eskualdetako euskara zerbitzuek, 16 orotara, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute Zabaltzen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin. Hirugarren urtea da katalogoa hau plazaratzen dutela eta bertan egun merkatuan dauden haur eta gaztetxoentzako euskarazko produktuen berri ematen da. Euskara zerbitzuetakoek aspaldi somatu zuten haurrek asialdian euskara ez erabiltzearen arrazoi bat zela baliatzen zituzten produktuak gaztelaniaz eginak zeudela. Horren aurka egiteko ekin zioten euskarazko jostailu eta jolas, bideo eta informatika produktuak, liburuak eta diskoak promozionatzeari.

Ekimen honen helburua da «gurasoei ikustaraztea euskaraz eskolatzearekin soilik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun oso, orekatu eta kulturalki erroturik hezitzea, eta honi laguntzen ahal dioten eta guztiendako eskuragarriak diren bertze faktoreak ere kontuan hartu behar direla». Gurasoei ere ikustarazi nahi zaie aukera handia dagoela haurrari euskarazko heziketa emateko nahiz eta haiek euskaraz ez jakin. Gainera ekimen honek euskarazko produktuen merkaturia azkartu nahi du.

→ Asier Azpilikueta

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



N eskaren gorpua ez dute aurkitu ez Ezkaba ingurunean, ez Bartzelonako Tibidabon, ez Holandako tulipan sail eder batean, ez. Eta, hala ere, topaketa makabro hori aipatu toki horietakoren batean gerta zitekeen, edo antzeko besteren batean. Gaiari dagokionez, tokia gutxienezkoa da eta. Ez da horrela gertatu, gorpua Artxandako pinudi batean aurkitu dutelako baizik.

Anibal el Canibal Lecter ibiliko zen seguraski inguru horretatik, haren arrastoak argiro topatu baituzte forenseek Virginia Acebes de la Huerta gazte bilbotarraren gorpuan: labankadaz josita eta erdi biluzik.

Hil aurretik —pentsatzeak berak ere min egiten

du—, izuaren muinetaraino eramango zuen hiltzailak hemezortzi urteko neska hau. Izua zertan den imaginatu ahal izateko, une bakar batez bada ere, ez dago joan beharrik The Blair Witch Project izeneko filmerra; izua eguneroko errealitatean txertaturik baitauekagu, eta ez du huts egiten hedabideetako egunez eguneko kronika beltzetan.

Hiltzaille mota honek ez du hiltzen erlijio, aberri, diru, armada edo Estatu arrazoiengatik, ez; horrela ez dute jokutzen. Arestian aipatu arrazoiengatik hiltzen dutenek ez bezala, Anibal Lecter bezalako hiltzailleek ez dute babes ideologikorik behar beren zitalkeriak egiteko. Haien aldeko siglarik ere ez dugu inon topatuko, ez dute beharrik, beren kasa baka-

rrik jarduten dutelako; mafiako kideak ere ez dira. Nolakoak dira, ordea? Zerk eraginda hiltzen dute?

Arrazoi genetikoak eta kulturalak aipatzen dira, azalpen arrazionala emate aldera. Akaso, biologiarren akatsa izan daiteke eragile nagusia, edo gizar-teak ekar dezake desbideraketa, edo biek batera joka dezakete hiltzaillearen alde. Auskalo.

Bitartean, gaixo dagoen gizarte honetan, kalerik kale dabilkigu Anibal Lecter, bere geneak matxuratutik daramatzala. Seguruenik, itxura arrunteko gizaseme bat izango da; ia hilketa guztietan emakumea baita biktima eta gizonezkoa, berriz, borferoa. Hari odoltsu horretatik tira eginez, agian, aska liteke matazaren korapiloa. Ez dakit.

Pinudian

Bera • Herriko Etxeko ateaak zabalik izatezko



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Gisa honetako erregistro guti dago oraindik Nafarroako udalen artean

Azkenaldian gero eta maizago aditzen ahal bada ere, oraindik udal gutik sortu dute izatezko bikoteen erregistroa, Nafarroan bereziki. Berako Udalak aho batez onartu zuen udalbatzak aurkeztutako proposamena. Balioa, hala ere, udalerrri mailakoa baino ez da.



Berako udalak aho batez onartu du izatezko bikoteen erregistroa sortzea.

• JOXE LACALLE

beharreko baldintza bakarra bikoteko kideetako bat beratarra izatea izanen da, hots; Berako Udalean erregistraturik egotea. Bi kideek herriko etxean agertu beharko dute izena emateko tenorean.

Oraindik guti diren arren, gero eta bikote gehiago bizi dira ezkondu gabe elkarrekin. Horiei ahal den neurrian babesa ematearren sortu du erregistro hori Udalak. Bere balioa, hortaz, udalerrira mugatzen da. Josu Goia Berako alkateak «ekintza gehienbat sinbolikoa» dela adierazi dio NAFARKARIARI,

baina «urrats bat gehiago izatezko bikoteen eskubideak bermatzeko tenorean». Honen arabera, beraz, bikote ezkonduak eta ezkongabeek Berako Udalaren aitzinean eskubide berak izanen dituzte. Gainerako administrazioetan, aldiz, oraindik gisako legerik onartu ez denez, erregistroak deus gutitako balio du (Nafarroako Gobernuaren aitzinean zein Espainiako administrazioaren aitzinean). Erregistro honetan bikote heterosexualek zein homosexualek eman ahal izanen dute izena.

Ezkontza zibilak ere bultzatuz

Udalak, hala nahi duten bikote guztiei, zibiletik ezkontzeko aukera emanen die, eta ezkontza ekitaldia nahi duten eran antolatzen utziko zaie. «Honelako jendeari diskreziôa gustatzen zaio, ez dute elizako ospakizuna bezalako egin nahi izaten, baina norbaitek herriko etxean ospatu nahiko balu, ateaak zabalik ditu», adierazi du Josu Goiak. Herriko E-txeko batzar aretoa erabiltzen da horretarako.

→ Jon Abril

herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Gozoak zeliakoentzat

ELIZONDOKO Retegi gozodendako Imanol Retegiri egin dio elkarriketa *Ttipi-ttapa* hamabostekariak bere azken zenbakian. Retegik, zeliakoendako gozoak egiten ditu, eta gai horretaz mintzatu da *Ttipi-ttapa* aldizkarian. Zerealei allergia dieten pertsonak dira zeliakoak, eta arroza eta artoa bakarrik jaten ahal dute. Ogia ere berezia erosi behar izaten dute: «Nere neskalaguna zeliakoa da, ezin du irina duen deus ere jan, eta horregatik hasi nintzen beretzat gauzak egiten: pastak, teilak, tartak... berari gustatu zitzaizkion, eta beranduago sal-

tzen jartzea erabaki nuen. Goxo hauek ikustean harrituak gelditzen dira zeliakoak, ezin dute sinetsi, pastak edo tartak ez dituztelako behinere jan, eta gustora erosten dute», azaldu du Imanol Retegik *Ttipi-ttapa*-n.

«Irin berexia erabiltzen dut, glutenik gabekoa. Gariaren almidoia, gluten guzia kendu zaion gari-iriba da. Arrontarina da nik erabiltzen dudana, eta horrekin nahiko zaila da lan egitea. Masa abudo hausten da, ez duelako indarririk. Diotenez, gluten guzia ez zaio kentzen, % 0,2 inguru izaten omen du

oraindik, baina horrek ez die normalean kalterik egiten. Nere neskalagunari bederen ez».

Elizondo inguruan zeliako gutxi dagoela adierazten du Retegik elkarriketan: «Nahiko gutti dira, 5-6 familia. Lekarozen badago bat, Elizondon 3 edo 4, Donezteben bat eta Leitzañan bakarren bat. Gaur egun hemen baino gehiago Iruñean saltzen dut. Astean behin banaketa egiten dut eta aldizka bi aldiz ere bai. Nik uste, Nafarroan ez den izanen bertze goxotegirik zeliakoendako tartak eta teilak egiten dituen».

Baldosen mundutik

Egunero ohetik altxatu eta, ezezen aurretik, gure katuari, Xaxari, janaria ematen diot. Berak, bere aldetik eta badaezpada ere, egunero-egunero gose dagoela adierazi behar dit eta katu-janaria gordetzen duen sukaldeko altzariaren aurrean keinu eta dantza tribalaren pauso guztiak burutu behar ditu. Goizero «baieeetz, tori, tori» batekin pentsuz betetzen diot ontzia eta ondotik nire kafea prestatzen dut. Errutina hutsa. Gaur beti bezala, eta bere tripak pixka bat bete ondoren, pasillora abiatu da mantso-mantso, jakin badakielako ez duela beste zereginik egun luze guztian. Ni kafearen zain nengoen sukaldean katu berriz bueltatu denean. Janariaren ontzira joan da eta ulertzen ez nituen mugimenduak egin ditu. Atzaparka hasi da janari-ontziaren alboko baldosetan. Lehendik eskuinetik, gero ezkerraldera joanez, atzaparka beti ontzira zuzendutako mugimenduekin. Bat-batean, ulertu dut. Janaria estaltzen ari zen! Lurrik gabe estaltzen gaxua! «Ze gauza bitxia instintoarena», pentsatu dut. Eta segituan burura etorri zaizkit horrelako beste bi gertaera; bata, txikitari etxean izan genituen txitoena: haiek ere baldosen gainean harraskatzen ibiltzen ziren botatzen genizkien ogi papurren bila, eta papurrak irentsita ere, harraskatzen segitzen zuten harren bat topatzeko itxaropenarekin. Eta bestea, kalean baldosen gainean kaka egin eta gero harraskatzen aritzen diren txakurrenak: atzera begiratu gabe beren kakak estaltzen ari direnen segurtasunarekin. Zenbat alditan iratzarri zait barruko filosofoa, ez ote garen ibili zibilizazioaren baldosa erraldoi honen gainean gu ere harraskatzen, gu ere engainaturik, usain txarreko gauzak estaltzen, gerorako janaria lur azpian gordetzen, existitzen ez diren bazkarien bila, existitzen ez diren lurretan arakatzen? Non mugatzen da eraiki dugun fikzioa, eta gu libre al gaude horrelako espejismoez? (hau da hau galdera sakona!). Enfin, hago lasai Xaxa gaxua. Bazkaria ongi gorde dinat. Horren ongi ezkutaturik ezen inork ez baitin kenduko. Hoa orain salara leihotik txorien ibilialik iustera eta ni kafea hartu eta lanera, hau da, baldosetara. ●

Mikel Amigot iruindarrak zuzentzen duen egunkari digitalak bereari eusten dio, enpresen presioei muzin eginez.

iBujula.com egunkari digitala gaztelaniazko lehen argitalpena da, mundu osoan 80.000 harpidedun inguru baititu. Argitalpena handia izan arren, hura kudeatzen duen enpresa, IMSSA, txikia da. Mikel Amigot iruindarrak enpresa hori sortu zuen «informazioa zabaltzeko, eta ez aberasteko». Eta bereari eusten dio, komunikazio enpresa handien presioei amore eman gabe, egunero informazio independentea sareratuz.

MIKEL AMIGOT 1997ko ABENDUAN HASI zen lagunei interneten inguruko komentarioak bidaltzen. *La Brujula Digital* (Iparorratz digitala) izena zuen komentarioak. Egun *iBujula.com* izeneko egunkari digitalak 79.000 harpidedun ditu eta goiti doaz, publizitate kanpainarik egin gabe. «Ez dugu publizitaterik, egiten horretarako baliabiderik ez dugulako», erran du Amigotek. «Gainera, ez dugu publizitateraren agresibitatean sinesten. Gure nahia da informazioa ematea inolako interesik defendatu gabe. Gure elkarte ez dago espekulazioari edo kapitalari irekirik. Hori bai, gako guziak ematen ditugu gero norberak erabaki dezan».

IMSSA enpresan autofinantzazioa dute helburu. «Enpresa hau ez dut sortu inor aberasteko», dio Amigotek. «Informazioa zabaltzeko baizik». *iBujula.com* interneteko gaztelaniazko hedabideen artean lehena denez, komunikazio enpresa handien presioa pairatzen du etengabe. «Hau erosteko saio anitz jasan dugu. Baina ez dugu amore eman. Eta oraindik ere sofitritzen dugu faktorekin. Baina hau ez da aldatuko».

Publizitateari esker finantzatzeko da *iBujula.com*. «Orain publizitatea sartzen ari zaigu hagitz. Gurea interneteko enpresa bat da guziz, eta inoiz ez dugu negozio planik egin. Negozio plana da inbertitzeko eskatzen dizuten lehena. Beharbada akats



Mikel Amigot iruindarrak *iBujula.com* egunkari digitala zuzentzen du. ● M. N.

i'Brujula. com', informazio independentzia

bat da ez egitea, baina salatuko gara berdin jarraitzen. Kontatzeko gauzak dauden bitartean segituko dugu». IMSSAn hogei bat pertsona ari dira lanean egun.

*iBujula.com*en ez dute beste hedabideetan dagoen «engainua» bizi. «Hemen ez dago autozentsurarik. *iBujula.com*en urrian sartu zen Telefonica iragarle gisa. Baina guk gureari eutsi genion, eta azararako jada ez zuen publizitaterik paratzen. Inbertituz gero influentzia izan dezaketela uste dute. Baina hemen publizitatea ordaintzen dute, besterik ez. Informazioa ezin da saldu. Helburua ez da dirudun izatea, informazioa ematea baizik. Mundu guziari «salduta» egon gara eta guziet eman diegu egurra».

Mikel Amigot:
«Egun internet ez da negozioa. Are gutiago guk dugun planteamendurekin. Gurea enpresa txikia da, ez du dirurik irabazten. Nik ez dut enpresan administrazio kontseilurik sortuko. Horretarako nahiago dut hau ixtea».

Itzal handiko iturriak

Interneteko lehen hedabidea denez *iBujula.com*ek informazio iturriak onenak ditu. «Hedabide gehienak prentsa arduradunekin hitz egiten dute, ni konpainietako buruekin solasten naiz», dio harro Amigotek. «Gainera, beraiek deitzen naute, ulertu baitute guri zerbait kontatzen badigute inon baino hobeto aterako dela, gure informazioa zehatzagoa delako». Informazioa ematen lehenak izan nahi dute. «Liderra

Izenarekin bueltaka

Egun *iBujula.com* dena *Labrujula.net* bezala hasi zen. Iazko urrian izen aldaketa egin behar izan zuten. «Jendea nahastu egiten zen», erran du Mikel Amigotek. «*Labrujula.com* markatzen zuten, baina ez zen deus agertzen, gurea *Labrujula.net* baitzen. Jendeak ez gintuen aurkitzen. *Net* bigarren mailako domeinua baita. Izan ere, *Labrujula* markatuz gero, besterik ezean, *com* domeinura eramaten zaitu». Beste arazo bat zuten gainera. «*Labrujula.com.ar* eta *bruja.com* izeneko webguneak badaude. Jakin genuen Venezuelako komunikazio talde batek zituela errejistraturik. Saiatu ginen izen horiek eskuratzen, baina ez genuen lortu, eta izen berria asmatu genuen: *iBujula.com*, interneteko iparrorratza. *Com*, *net* eta *org* aldaera guziak errejistratu ditugu badaezpada ere. Izena gustatu zitzaigun, eta ez genuen pentsatu ea komenigarria ote zen edo ez. Hau internet da, eta ez dugunez inolako menpekotasunik edo erantzukizunik, gauzak gustatzen zaizkigulako egiten ditugu», adierazi du Amigotek.

Abenduaren lehen beste berrikuntza bat ekarriko du sareko iparrorratzak. *iBujula.com* egunkariaren eredu independentea informazio esparru guzietara zabaldu nahi dute eta *iBujulaberriak* informazio gehiago sareratuko du. NAFARKARIARI eskusiban ikusi ahal izan du webgune berria eta horren azalak erreportai haur laguntzen du. Berrikuntzen artean aipagarria da irratia izanen duela *iBujulak*, internet bidez soilik entzuten dena: informatibok, solasaldiak, elkarrizketak eta, noski, musika.

ren indarra erabiltzen dugu, eta iturriak gogor tratatzen ditugu. Horren emaitza da informazio guzia dugula».

«Internet ez da negozioa»

Egun, Amigot *iBujula.com* egunkariaren zuzendaria da soilik. Orain ez ditu IMSSAren zenbakiak kontrolatzen, zama hori askatu du. Amigotendako internet kaosa da. «Arazoak anitz dira, baina etekinak ere ikaragarriak dira. Informazioa milioika pertsonen momentuan bidaltzea izugarria da». Hala ere, egun, «internet ez da negozioa», Amigotek dioenez. «Are gutiago guk dugun planteamendurekin. Interneteko ekono-

mia aurreikuspenetan oinarrituta dago. Orain enpresek dirua galtzen dute, baina aurreikuspenei begira negozioa milioi askokoa da». IMSSA enpresa txikia da, ez du dirurik irabazten. «Gure ideia gureari eustea da». *Mikel komandantea* deitzen du lan-kide batek. «Nik ez dut enpresaren administrazio kontseilua sortuko», dio. «Horretarako nahiago dut hau ixtea. Hau liluragarria da, baina besterik ez. Nik ez dut gehiagorik nahi. Ez dut dirurik nahi. Egunean ordu gehiago nahi ditut, informazio gehiago emateko».

→ Asier Azpilikueta

Mikel Amigot, bere webgunearen ispilu

Mikel Amigot iruindarrak San Fermin ikastolan ikasi zuen, eta gero, kazetaritza ikasketak egin zituen Nafarroako Unibertsitatean. 1985ean Euskadi Irratian hasi zen Aita Arregi eta Mikel Lejarzarekin. «Beharbada inoiz egin dudan onena izan zen orduko», gogoratu du Amigotek. «Estafeta karrirari geunden, *Deiaren* ordezkaritzan. Oso dibertigarria izan zen». Iruñean gelditzeko aukera bazuen ere, 1987an, karrera bukatu eta Madrilera joan zen, «informazioa han zegoela» uste zuelako. «Bekario moduan sartu nintzen *Expansion* egunkari ekonomikoan. 1988a arte izan nintzen hor. Gero *Dinero* aldizkarian izan nintzen, eta honen ostean, *La Economía 16* egunkarian. Baina azken hau itxi egin zuten eta Comecosakoek fitxatu ninduten *Ya* egunkarian aritzeko. Orduan hasi nintzen idazten Neguriri buruzko liburua, BBVren inguruan, eta bota egin ninduten. Liburua hagitz ongi saldu zen, baina ni langabezia nengoen. Sei hilabetez egon nintzen horrela. Hurrengo urtean Planeta argitaletxeak deitu eta idatzi nuen Botindarren inguruko liburua, bankarioen familia honi buruzko liburu bakarra. Hori ere hagitz ongi saldu zen, baina inork ez zidan lanik ematen kazetari bezala, banku handiak aurka baintuen. Planetak gehiago idazteko eskaini zidan, baina liburuak saldu behar nituen, hau da, hitzaldiak eman, elkarrizketak egin eta abar. Eta nik hori ez nuen nahi».

Kazetari eta idazle moduan aritu ezin zenez, Amigotek marketina ikasteari ekin zion irakasle izatea lortzeraino. Ondoren marketin kontsultorea izan zen. «Marketin-gizon bezala ongi moldatzen nintzen, baina ez zitzaidan gehiegi gustatzen». 1995ean interneteko ikusi eta liluratu zen. «Informazioaren transmititze hutsa da, eta ia dohainik. Nik beti interesa izan dut informazioa eta enpresa uztartzeko, ikusten baitut informazio alorreko enpresariak saltzea besterik ez duela helburu eta kazetariak kaotikoak gabela enpresa bat eramateko». Eta bere enpresa sortu egin zuen 1996an, IMSSA (Information Marketing Strategies). «Kazetaritza modu puroan egiten dugu, eta gure enpresaren estrategia bizirik irautea da», adierazi du Amigotek. «Egunkarietan «ziberdiruduna» eta holakoak bota dizkirate. Baina pertsona bera izaten jarraitzen dut. Ez dut dirurik, eta alokairuan bizi naiz Madrilera etorri nintzenetik. Baina arazorik gabe. Nik beti bizi eta jan izan dut ongi».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Luis Mur tuterarraren gainean

Pasa den ostiralean, hilak 19, Merindad de Tudela Ikasketa Zentruaren aldizkariaren azken zenbakia aurkeztu zen Tuterako Castel-Ruiz kultur-etxean; bederetzigarren zenbaki honek dakarzkigun sei artikuluetatik, Luis Mur XVII. mendeko politikari eta idazle tuterarrari buruz Esteban Orta historialariak eginikoa nabarmendu nahi dugu.



Kexu agertzen zitzaizkigun bai Luis Campoy Tuterako alkatea eta bai Esteban Orta Murtxanteko historialaria lehengo astean eginiko Merindad de Tudela zenbaki berriaren aurkezpenean, norberak bere arloan, eta biek arrazoia bazuten ere, arras iritzi interesatu eta subjektibo ditut, neure begikoz. Campoyek Nafarroako eta are Erriberako kultur eskasia egunkari batean berriki salatzen zuen gutuna ezestatzen ahalegindu bazen ere, ezin du ukatu ere egin, diakronikoki bederen, historia osoko unerik lardasgarrietarikoa pairatzen ari dela Ebroko Nafarroa baita honetako hiri buruzagia, urrutiegi baita oraino ertaro arabiarretik, erre-nazimendu judutarretik, zein argien ilustratuengandik. Bestalde, apalki baina nahikoa asaldaturik, Luis Muri buruzko sarrerarik GEN-n ez izatea Ortak salatzen zuenean, ez bide zituen euskal egileak nafartzat, hauen gaineko sarrera eza nabarmena hargitz salagarri ere otu bide ez baitzitzaien. Nolanahi ere den, eta euskal kulturari buruzko hutsune interesatua gora-behera, arrazoia bazuen Murtxantekoak, eta mereziko luke jada zaharkiturik geratu den GEN-ren balizko edizio berri batean Muren gaineko sarrerarik egitea.

Luis Mur eta Navarro Tuteran jaio zen 1598 abenduaren 6an. Nahiz Murtarren etorki noblea erakusteko agiririk baden -Castro Alavak XVI. mendeko idazki bat aipatu zigun non Muren etorkia XI. mendean Zerdainiako konteak zen Gilen Ramonengan zegoen-, aski nabaria dateke aita zein amaren aldetiko bi sendien

etorki judutarra. Ireki berria zen Tuterako josulagundiaren ikastegian ikasi ondoren, Luis Murek kanonak eta legeak Huescan ikasi zituen, 1620. urako Tuterako Eliz Nagusiko Kabildoaren zein Udalaren abokatua zelarik. Hiru urte geroago Isidora Larrea Loiola gipuzkoarrarekin ezkondu zen. Politikari aparta, 1637.eko Nafarroako Gorteetan izan zen Tuteraren izenean; heldu zen urtean, berriz, Madrilera igo zuen Nafarroako errege-ordeak Olivares konte-dukearen eta Fiteroko abadearen artean sorturiko aharra baretzeko mandatuarekin; 1638. ean Hondarribiko setio famatuan dugu gerlari;

1642. ez geroz Nafarroako sindiko izan zen Felipe IV.aren gortean -ezagunenez, Felipe IV. a 1646. ean iritsi zen Nafarorra- Luis Mur 1650.eko azaro-abenduan hil zen Iruñean, erret-kontseilukoa eta Erresumako Gorte Nagusiaren lehendakaria zelarik.

Bizitza politikoa gainera, Luis Mur idazlea ere bazen izan. Bi dira egunotara iritsi zaizkigun Muren lanak. 1641. ean Tuterako hiriko udalak hiriko historiari eta pribilegioei buruz Murek egina zuen liburu baten inprimatzeko akordioa hartu zuen, alabaina lan honen arrastorik ez da egun, eta honenbestez, galdutzat edota ez argitaratutzat eman beharko dugu, areago, Conchillos garaikideak bere Propugnaculon aipatu ez zuelako. Nolanahi ere, iritsi zaizkigun bi lanak nahikoa interesgarriak badira Muren balio literarioa gailentzeko.

Bidetako lehenengoa 1640. ean ageri zen Zaragozako Diego Dor-

mer baitan, Iusepe Ginebart liburu martxantak ordaindurik, eta San Lukarreko konte-dukeari eskainia: *Triunfos de la esclavitud, virtudes de Moysen y dureza de Faraón*. 120 orrialdetik gorako liburu hau saio politikoa dugu, eta Moisesen bizitzaren pasarteak iruzkinduz, printzeak behar duen zuhurtziaz zein printzeari zor zaion obediendiaz ihardukitu zuen Murek, Makiaveloren teoria politikoa ispilu. Bigarren lana, aldiz, 1645.eko da: *Tiberio ilustrado con morales y políticos discursos*, berriro ere Zaragozako Diego Dormeren etxean, baina Pedro eta Tomas Alfay anaiek ordainduta. Duarte Fernando Albarrez de Toledo Nafarroako erregeordea eta Nafarroako zein Gipuzkoako kapitan nagusia zenari eskeini lan hau lehenengoa baino nabarmengarriagoa dugu, nahiz estrukturaliki, ideologikoki zein poetikoki arras desberdintasun gutxi aurkezten duen: kapitulotan banaturik, bakoitzaren hasiera Tiberioren bizitzaren pasarteak aukeratzen ditu iruzkintzeko; Tazitoren zein Machiaveloren pentsamenduan oinarrituagatik ere, nahikoa pertsonala agertzen da askotan; eta estiloari bagazokio, barrokismoaren ezaugarriak aisa atzeman daitezke, esaterako, paralelismoak, kiasmoa, eta hizkera esakunetsua; hitzaurrean zioskunez: «En este epítome, sino de la historia de la vida de Tiberio, he pretendido descifrar lo que rescató su astucia. Mucho será entender muerto al que vivo pareció inapeable, pero si de las acciones de los príncipes se discurrir mejor a vista del tumulo que del trono, mejor se leerán las verdades entre las cenizas que entre la purpura. Sea el comentario de su vida, y la contracifra de sus engaños, el saber que siempre quiso lo que disimuló, y disimuló lo que quiso».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Hitzak larrutzen II

NEGOZIOA: Gaur justu kontrakoa badirudi ere, *negotium* hitzetik dator, eta *otium* (asti) hitzaren ukapena esan nahi du. Greziarrak otera, *scholé* deitu zioten *otium* latinoari, eta bizitza duinaren oinarritzat zeukaten. Gure egungo eskola hitza *scholé* hartaxetik dator, eta adierazgarri da hagitz, nola gure gizarteko *otium* modu guziak, atzenaldira, duintasunaren izenean, «obligaziozko eskola» bihurtzen ari diren. Jada inork ez du bizi, zer bizi?, ez du sumatu ere egiten, *otium* hitzaren zentzu senekar zaharra. Oraingo jendajeak zentzu gregario xixtrinean, hau da *negotium* zentzu mixerablean baizik ezin du jasan bere *otium* partikularra. Bere asti prezatutzat hartu beharko lukeena, hastio bihurtu zaio egungo gizamoduari, eta ez luke, agian, interes eskasagoa izanen euskaldunontzat *asti / hasti* hitzen ahaidetasun eta etimologia bilatzeak.

HAUTESKUNDEAK: Ez da inor berarentzat soilik galtzen, beste galbide eta galtzaile gara bidenabar; aurrekoen esanera egokitzea kalte da, eta erosoago zaigunez inori sinestea nork bere erabakiak hartzea baino, ez daukagu inoiz bizitzaren irizpide propiorik, sinetsi egiten dugu beti, eta eskuz esku guganaino geldu den erruak inguratzen gaitu eta suntsitsen. Besteen etsenpluek garamatze galbidera; ez dago beste biderik: jendaldea saihestuz zentzatuko gara. Baina segituan gure erabakien aurka hasiko da marmarka herria, bere betiko gaitzaren defentsan. Onetsi dugun huraxe bera gaitzesten dugu: horra gehiengoz erabakitako auzi ororen azken beltza.

PANDEROJOLEAK: Liburu zaharberri batego pasarte dugu: «Afeminatuen sinbolotzat hartzen zuten panderoa, Zibelesen apaiz maritxuek erabiltzen zituztelako». Bere izpiri-

tu ahula jendeurren poxten duen jende gehienak, izaten du berez halako ukitu afeminatu bat, baina, besteak beste, bere panderoarekin filigranak eginez, gorputz guzia bueltan kaxkaka hartzen duen kreatura horrek, ez dakit zergatik, egungo hizkera soziologikoan nabarmendu den «matxista» klasea ekartzen dit gogora. Etxetik apartera gabeko esperientziak ere baditut. Hagitz interesgarria izanen litzake, norbaitek entsegu eder bat egiten balu, *afeminatu, fanatiko estu, matxista* eta nahinolako *artista publiko* hitzen azpiko izate zinezkoak, elkarri dioten zorra egungo semantikan aztertuz. Nago feminismo kontuen xoko ilun asko ipiniko ez ote litzuzken argitan. Luziok esanen lukeen bezala, gizartea sostengu duen izpiritu ahuletik sortzen baita basakeriarik krudelena.

PROGREAK GURE ALDE? «Ni diputatu bezala, hizkuntza eta kultur erregionalen alde lanean ari naiz. Nire diskurtsoan, kultur gutxituak ez atzerakoiak ez erretektarioak direla argudiatu behar dut. Ze, pentsa Frantziar kultur minorizatuen aldeko diskurtsoa atxeki dutenak, tradizionalki petenistak izan dira, kontsebatzaileak, gerraren aurretikoak. Beraz aurrerazale den esker askotariko boz emaleari, diskurtso hori atzerapauso bat iruditzen zaio. Ni salatzen naiz erakusten, kultur gutxituen aldeko borroka, aurrerazaleen borroka dela. Sozialista direnentzako zaila da, ordea». Jean Espilon dori deskuidoan eskapatu zaion argi printz hori ederra iruditu zait, batez ere iraultza sozialistaren lelo faltsu burges ustela, lotsaren zipitzi gabe aldarrikatuz gure herri koxkorron arima pizar xaloa irentsi arteko onik ez duten salbadoreon burla egunero jasan behar dugunontzat. Batzuk sikira geuregisa uzten gaituzte: hil edo bizi; ergel berriok horixe ere ez: egia zuriz eta dogmaz akabatu nahi gaituzte lehenbailehen.

Ziria

Motxorrosolo

Lastozkoa

GAzken unean ere, bere nahia betearazi egin du. Zauria zornatzeko bidean da. Ez dirudi aukeratu duen lastozko lehendakaria bi aldeak batzeko gai izanen denik. Baten batek erabateko urrunketa gaitzatu du. Nafarroan politikagiteko tenorea iritsi ote zaio Arrotxapekoari.

Iñigo Ibarra

Bertsolaria

«Gipuzkeraren menpe dago bertsolaritza»

Bertson leitzeraz. Hiztegiak izenburuko lana idatzi eta laster plazaratu egingen du Iñigo Ibarra bertsolari gazte iruindarrak, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Bertsotzale Elkartearen eskutik. Bertsolarientzat hiztegi errimatua osatu du Ibarrek lan horretan.

DURANGOKO AZOKAN AURkeztu nahi du Iñigo Ibarrek Leitzako hizkerari buruzko bere lana. Bere liburua bertsolaritza eta euskalkiak maite dituen ororentzat dela azpimarratu du.


■ Nola sortu zitzaizun Leitzako hiztegi errimatua idazteko ideia?

Senitartekoak badituz han, eta beraz, herri horrekin hurremana badut. Baina ideia batez ere sortu zitzaidan bertsolaritzan murgildu nintzeanean. Joan den urteko txapelketan parte hartu nuen lehen aldiz, eta orduan hasi nintzen fundamentuz niretzako erri-ma zerrendak osatzen. Erri-ma mordoska nuen eta pen-

tsatu nuen horiek plazaratzea interesgarria izan zitekeela, eta hasi nintzen biribiltzen gehiago, etxe batzuetan galdezka, eta horrela sortu zen liburua. Batez ere bertsolaritza eta euskalkiekiko aspalditik dudana zaletasunak bultzatu nau lan hau egitera. Batekin edo bestearekin hitz egiterakoan beti saiatzen naiz bere hizkerara moldatzen.

■ Zer bildu duzu zehazki liburuan?

Leitzako hizkerako hitzen bilduma da. Liburua hiztegi bat da, edo, bi hiztegi, hobeto esanda. Batetik da hiztegi errimatu bat, garai batean Xabier Amurizak atera zuen hiztegi errimatu bera, baina



UXUE MONTERO

Leitzako hitzekin bakarrik. Leitzako hitzak esaten dudanean, inguru guziko hitzak esan nahi dut, seguru aski antzekoak izanen baitira. Bigarren zatian bildu ditut hitz horien esanahia. Leitzar ez den batek liburua erabili nahi badu, hiztegi horren bidez jakin ahal izanen du hitz bakoitzaren esanahia. Bukaeran, Leitzako esamolde eta esapide batzuk bildu ditut.

■ Nola moldatu zara hitz guztiak biltzeko, nolakoa izan da lan prozesua?

Serio joan den urteko Aste Santuan hasi nintzen hitzak biltzen. Hala ere, etxean ama hizkuntza leitzako hizkera izan dut, eta beti hitz franko erabili ditut. Lagun eta familia artean entzundako hitzak bildu ditut batez ere, eta, hortik abiatuta, hainbat baserritan ere egon naiz hitzak biltzen. Ez dut oso ikerketa lan sakona egin, Leitzako hizkerari buruz asko idatzi delako.

■ Leitzako hizkerari buruz egin diren azterketak kontuan hartuta, zer edo zer berririk aurkitu al duzu?

Leitzako hizkera asko iker-tu da. Olanoren liburua dago leitzarren hizkerari buruz, eta

«Bertsolaritza eta euskalkiak maite dituenarentzat egina dago nire lana, batez ere. Liburua bertsotarako erreminta da. Bakoitzak bere herriko hizkera erabili beharko luke bertsolaritzan»

Patziku Perurenarena, herriko bertso eta pasadizoekin. Nik, batez ere, bertsolaritzara bideratu nahi nuen nire lana. Hala ere, gauza berririk aurkitu dut; zenbait gauza esateko hitzik zegoenik ere ez nekien, eta hitz horiek aurkitzea izan da gehien harritu naue-na. Hitzei dagokienez, 2.000 inguru bildu ditut, eta erdiak beste liburu horietan agertu-ko dira, ziurrenik. Esamolde-ak, berriz, bildu gabe zeuden gutxi batzuk jaso ditut nik.

■ Liburua bertsolaritzara bideratu nahi izan duzula esan duzu; bertsolarientzako liburua da, beraz?

Uste dut bertsolaritza eta

euskalkiak maite dituenarentzat egina dagoela. Liburua, batez ere, bertsotarako erreminta da. Bakoitzak bere herriko hizkera erabili beharko luke bertsolaritzan, eta liburua horretarako pauso bat izan daiteke. Leitzako hizkerarekin egin den bezala, Lesakan edo bestelako lekuetan gauza bera egin dezakete. Gaur egun bertsolaritza gipuzkeraren menpe dago, dauzkagun bertsolari handienek ere, Lizaso edo Peñagari-kano, esaterako, gipuzkera erabiltzen dutelako.

■ Zuk osatu duzuna bezalako hiztegi errimatu baten beharra dute bertsolariek zure ustez?

Ez dakit. Nik uste dut bakoitzak bere iruditegi propioa osatzeko etxean landu behar duela zerbait, bai esapideak direla, edo errimak direla.

■ Liburua Durangon aurkeztea da zure asmoa; zer lortzea espero duzu?

Ez dut uste Nafarroatik kanpo askok erosiko dutenik, baina euskalkiak, hizkerak gustuko dituenarentzako erabilgarria izanen daiteke.

→ Eudurne Elizondo

soslaia

Infin sortu zen Iñigo Ibarra bertsolari gaztea, duela 25 urte, eta Leitzako hizkerari buruzko liburua idatzi du. Ana gipuzkera da, baina Leitzan hazia, eta hainbatetik datorkio herri honetako idura. Iñigo Ibarren lehen liburua (Bertson leitzeraz. Hiztegiak) laster eskuratu ahal izanen dute irakurleak, Durango Azokan, ziurrenik. Bertsonan edo idatzen ari ez denean, mekanika lan-tegi batean lan egiten du Ibarrek.

Bertsolaritza eta euskalkiekiko zaletasuna aspalditik datorkio Ibarra gazteari, baina duela bi urte murgildu zen bertsolaritzaren mundan, buru-belarri. Bera den urteko Nafarroako Txapelketan parte hartu zuen lehenbiziko aldiz, eta datorren urteko otsailan egingen ditena da, jada, liburua. «Hasi berria zarenen enazago ikazkitzen dira aurreapausok», dio bertsolari gazteak, eta bertsolaritzaren mundan aurrera egiteko prest da.

Leitzako hitz, esamolde eta esapidekin batera, berak egindako hiru bertso ere bildu ditu Iñigo Ibarrek bere liburuan: herrietako bi osan baserriari buruzkoak, eta, hiru-garera, beraz, Inñigo hiriari eskaini dio. Jon Oros leitzanek idatzi dio hitzaren, eta, argazkiak, beraz, saletanetan berekin ikusitako Inñigo Bergara argazkilaria egin dizkio. Ibarren lehen larak laster ikusiko du argia, baina, orain, bertsolaritzaren mundan egin nahi ditu inuindarrak bere hurrengo urratsak.



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

Ea, osasuna!

Osasunak hondoa jo du. Jokalari eta zuzendaritzako kideek «positibotzat» jo dute euren artean izaniko bilera, baina berdegunean zail samar egiten zale gorritxoek positiboak erdieste. Eta entrenatzaileak, Lotina mañakarrak, ez du bere taldea gustuko. Igandero Sadarrera jeisten direnak Lotinaren iritzi berekoak dira. Are gehiago, litekeena da Lotina bera gustuko ez izatea. Nolanahi ere, aurten zaila eginen zaio Osasunari lehen mailara igotzea. (Barre algarra). Ongi da. Kostata eutsiko dio oraingo mailari. Baina lortuko du. (Txalo zaparrada). Izan ere, horretarako jokalariai ditu.

Dena dela, Cesar Palacios Osasunaren kapitaina izaten jarraitzen duen bitartean Osasunak bigarrenaren putzu beltzean segituko du. (Txistuak). Osasunzale gehienek Palacios dute gustuko bertakoa delako eta partidak izerditan blai bukatzen dituelako. Balo guzien atzetik abiatzen da eta horiek harrapateraino ez du amorerik ematen. Gero, baloia eskuratzen (edo oineratzen) duenean bi dira Palaciosen egiten dituenak: segituan galdu edota, baloiarekin zer egin ez dakielarik, handik bi segundutara galdu. (Txistuak, irainak eta mehatxuak). Baina Palacios jokalaria ona da bigarrenari eusteko, baita berarekin dauden beste guztiak ere. Eta Lotina mañakarrak ez du bere taldea gustuko.

Begoña Errazti bizkaitar-nafarrrak EA alderdiaren timoia hartu berri du. Errazti zer da, bere taldea gustuko ez duen bizkaitarra ala taldearen kapitain nafarra? Nik Palaciosen itxura hartzen diot. (Begoñoña! oihuak).

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Elizondo:** Gaur Mermaid taldeak joko du Casino ostatuan, 22:30etan.
- **Burlata:** Bihar Benito Lertxundiren kontzertua izanen da Elizgibela kiroldegian, 22:00etan.
- **Elizondo:** Bihar Buitraker, Kaos Etoliko eta Skalariak taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30etatik aurrera, Abastoseko gorapean.
- **Iruñea:** Bihar, 23:00etan, Freak XXI eta Bad F-Line taldeak ariko dira Artsaian.
- **Iruñea:** Asteazkenean Marea taldeak kontzertua eskainiko du kartzelan.
- **Burlata:** Ostegunean, 20:30etan, Joseba Lasaren kontzertua izanen da Axular elkartearen.

BERTSOLARIAK

- **Baiona:** Gaur, 19:00etatik aurrera, bertso-trikia eta bertso-afaria izanen da Xumai Murua, Miren Arretxe, Eneritz Zabaleta, Txato, Ortzi Idoate, Sustrai Kolina eta Amets Arzalluz bertsolariekin. Jon Sarasua izanen da gaijartzaile.

HITZALDIK

- **Burlata:** Gaur, 20:00etan, Xanti Begiristain *Barreak eta haserreak* bere liburuaz ariko da Axular elkartearen.
- **Zizur Nagusia:** Gaur, 20:15etan, Pepe Rei kazetariak *Ardi Beltza* proiektua aurkeztuko du igerilekuan. Ondoren, herri afaria eginen dute.

ANTZERKIA

- **Berriozar:** Bihar, 20:00etan, *Amata, euskaldunak VIII. mendean* lana eskainiko du Mikelats dantza taldeak Mendialdea ikastetxean.

- **Zizur Nagusia:** Alioli taldeak *Déjate llevar* antzezlanaren estreinatuko du bihar, 20:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

- **Iruñea:** Igandean, Gaztetxean, Woody Allen zuzendariaren *Maitasuna eta heriotza* filma botako dute pantaila handian, 20:00etan, Zaldiko Maldikok antolatua.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Arizkunenea kul-

tur etxean Miguel Angel Rezola eta Javier Igoaren margolanak daude ikusgai abenduaren 2a arte, astelehetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Gaur, Donianitz Donibaneko euskara taldeak antolatua, triki-poteoa eginen dute Asuncion plazan, 20:00etatik aurrera.
- **Gares:** Euskararen VIII. Kultur Astearen baitan, gaur Mikel Urdangarinen kontzer-

tua izanen da 20:00etan, erabilera anitzeko aretoan. 21:30etan afaria eginen dute Garesko AEKren alde (948-340007). Bihar, 17:30etan, Txirrista taldeak *Abere kantariak* txotxongilo lana eskainiko du eskola publikoan.

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak abenduaren 7an Durangora joateko autobusa antolatu du. Autobusa eta bazkaria: 3.000 pezeta; autobusa bakarrik: 1.600 pezeta. Txartelak Karrikirin, AEKn eta IKAn daude salgai.

Arga gaineko zaldain berria



Lehen, Alde Zaharretik Madalena auzora abiatzen zen mozkortari zail samar egiten zitzaion Arga ugalde gaineko zaldainak saltoka igarotzea. Orain errazagoa izanen du. Diseinuzko zaldain berriaren siga-sagak gauzak erraztu dizkio ziraldoa ibiltzen den xurruteroari. Dena den, kanoen bidea uzteko egin duten tuneltxo hori lehen mailako mendatea irudituko zaio gautxorari. Irudiko txakurra ez zen iragaiten ausartu eta buelta erdia eman zuen. Zentzuzko erabakia ez bairik gabe, ibaia-zen hezetan ez baitu bidea errazagoa egiten. Zaldain zaharrak, 1944an paratu zituzten 105 bloke haiek, hormigoizko zaldain berriaren azpian daude orain. Eskerrak eman beharko dizkiogu Montxo Armendarizi, bere film bati esker bihotzeko zaldain zaharrak sekretupean baitaude.